

Gure gazteen aldarria

OSPATU ETA ALDARRIKATU: EUSKADIK AURRERA DARRAI!

POR
Gorka Mostajo
Galduroz*

Ez ditut orotzen nire lehenengo Alderdi Eguna, bai ordea gogoan ditut: Salburuko txiki-txokoan igarotako orduak; gizon nagusi batzuk tribunatik jendetzari txalo zaparrada ateratzen (gerora jakin nuen gizon horiek Ardanza Lehendakaria eta Xabier Arzalluz zirela), aitate eta amarekin igarotako uneak... Ondoren etorri zen Ibarretxe Lehendakariak esaten zituenak ulertu, sentitu eta nire egitea, Forondara lekualdatzea eta gure aitate Alderdi Eguna etorri ezin izatea, nekagarria egiten baitzitzaion egun osoa eguzkitan gurgildun aukilan zelaian zehar ibiltzea. "Euzkadik behar zaitu", "ETA ez", "Nos quieren Joder pero tenemos un plan... Ibarretxe aurrera!", "Kontsulta bai"... urteetako pailsaieren parte diren lelo hauen pegatinak ere asko gogoratzen ditut. Gaur, zoritxarrez, aitate ez dago gurekin, Moreno eta Bujanda gudariak eta beste alderdikide asko eta asko ez dauden bezala; baina ni Forondan nago orain. Ostiraletik nago hemen ni bezalako hainbat egikideekin akanpatzen, Alderdi-dikide gazte garea ospatzen, gure Alderdi gure aletxo eskaintzen eta gure Alderdiaren iragana gogoan, herriaren geroa baina batez ere oraina garea aldarrikatzen. Niretzat den bezala, egun oso berezia da gazte jeltzale guztiontzat Alderdi Eguna: aldarrikatzeko eta ospatzeko eguna. Ez dut erabiliko "aurten inoiz baino gehiago" ospatu behar izanaren mantra, askotan aipatzen baita zita "historikoaren" leloa (eta ez da); baina bai beste urte batez ospatu beharrean gaudela deritot, egunero egiten baitugu historia guk, eta ez da gauza erraza: gera zaituzte une batez eta pentsatu zenbat sigla eta zenbat letra zopa egin daitezkeen guri aurre hartu edota bai Herri zein Alderdi bezala desagerraraziko gintuztenak zenbata. Pentsatu, esaterako, Fragaren promesa hartan: nola esaten zuen? Bera bizirik egon artean Ikurrina ez zela legala izango? Ba pentsatu gaur bera ez dagoela eta gure Ikurrinak eta gure Herriak badiraute aurrera. Pentsa Euskadiren askatasuna armekin lortuko zuten horiek zelan desagertu ziren. Eta pentsatu, zergatik ez, gaur egun duten zatiketa nabarmenagatik egunkarian agertzen diren eta bere garalan Alderdi Eguna gurekin ospatzen zuten horien. Pentsatu eta galdetu zuen buruari: non daude haiek eta non gaude gu? Batzuk disolbatuta, beste batzuk desagertuta... eta guk hemen diraugu, Euskadik aurrera dirauen bezala. Hori da gaur hemen ospatzen duguna. Eta ospatu behar duguna, ez baitira garai onk alderdi politikoenzatzat. Erreparatu mundu mailako krisi politikoa eta sozial tamalgarriari. Berri

Txarrak'ek dioen bezala, "niaren diktadurapean" bizi gara, eta horrek kezkatzen gaituen individualismo eta gizatasun eza besterik ez dakar. Mundu zabalean Bolsonaro, Trump, Ameriketako komunitateetako liderren erahilketak, FARCen itzulera, Venezuelako krisi humanitarioak, Afrikako goseak eta espolioak, Ekdalde Hurbileko tentsioak... ditugu kezka nagusi. Gure ama den European Brexittak, Mediterraneoko errefuxiatuen bidegabekeriak, eskuin muturren hazkundeak... kezkatzen gaituzte. Madrildik datozen aireek ere ez dute itxura onik trifatxitoaren intolerantziari Podemosen politika populistak (eta zentralistak) batu behar dizkiegu PSOEren noraez harrigarriekin batera: egun batean ezkertiar esnatu eta eskuinarekin paktatzeko gogoekin oheratzen dena, insomnio arazoak bitarte. Eta denak gure anai-arreba katalanei egiten ari zaizkien inoizko eskubideen urraketa nabarmenak jaramonik egin gabe eta gure Gernikako Estatutu eta eskubide historikoak ahaztuta. Hemen Euskadin, 36ko gudariak ETAKideekin era narrasean zikintzen darabilen legebiltzarkideren bat ere badugu, bere alderdia zein den esan beharrik ez dagoena: imajinatuko duzue zein den. Honen aurrean, politika abertzale eta humanista serioa aldarrikatzen dugu euskal gazteok, horixe behar dugu: inor baztertu gabe eta

Hemen gaude egikideok, Alderdiari gure aletxo eskaintzen eta gure Alderdiaren iragana gogoan, herriaren geroa baina batez ere oraina garea aldarrikatzen

Zerk kezkatzen gaitu? Langabezia, prekarietatea, emantzipazioa; preso katalanen eta Altsasuko gazteen egoera; matxismoaren gaitza eta aldaketa klimatikoa...

Batzuek 'politika zaharra'ren zakuan sartzen gaituzte, baina ongi jakin izan dugu une bakoitzean non egon, Primo de Riveraren diktaduran hasita gaurko egunerarte

politika kaxkarra politika gehiagorekin eta hoberekin desagerraraziz. Norbaitek pentsa lezake datorren urtean 125 urte beteko dituen alderdi bat izanik, oraindik eta garai txarragoak direla guretzat, baina ez: guk badugu zer ospatu eta aldarrikatu eta horretara gatoz. Ia 125 urte dituen Alderdi abertzale eta humanista bateko gazte humanistak gara Euzko Gaztediko kideak eta Forondan, duela 40 urte bezala, Alderdi Eguna asteburuan akanpatzen jarraitzen dugu, bere garaian Salburuan, Getxon, Altuben, Aralarren... egin bezala, Euzko Gaztediren izana eta izena aldarrikatuz. Bere garaian "soldaduzkari ez", "Autonomia Estatutua" edota "Garofia itxi" entzun zitezkeen bezala, gaur egun ere, gazte garen heinean ez gaude konforme eta langabezia, prekarietatea, emantzipazioa... horiek denak sufritu eta salatzen ditugu. Betiere, gaur egun, bereziki preso katalanen eta Altsasuko gazteen egoera bidegabeek kezkatzen gaituzte, baita matxismoaren gaitzak eta aldaketa klimatikoak ere. Giza eskubideen aldarrikapenean eta pertsonen duintasunaren defentsan, EGKideok ezin dugu humanismoa ulertu feminismoak gabe, ezta planetaren zaintzarik gabe ere. Greta Thunbergekin dioen bezala, "edo zibilizazio bezala jarraitzea aukeratzen dugu, edo ez dugu hori aukeratzen". Ez dugu aberri askerik izango, emakume askerik gabe, eta ez dugu aberririk izango planetarik gabe. Beraz, Alderdiari eta instituzioei gazteok kontuan har gaitzaten eskatzen diegu, batez ere politika feministen eta ekologisten alderdian. Batzuek "politika zaharra"ren zakuan mesprezuz sartzen gaituzten bitartean eta "kasta" eta "elite" hitzez izendatzen gaituzten bitartean, guk harro diogu mende bat eta laurden dituen alderdi baten parte garea, urteetan zehar bere garaia egokitzen jakin duena eta errepresioa, ilegalizazioak eta jazarpena sufritu dituen. Zahar bezala katalogatzen gaituzte, zaharkituta omen gaude, baina aski ongi dakigu eta jakin izan dugu EAJkook une bakoitzean non egon: Primo de Riveraren diktaduran, emakumeen boto eskubidean, Francoren diktaduran, ETArekin eta Estatuaren indarkeriaren aurrean, LGTBI+ kolektiboa babesteko legeetan, aborto eskubidea babestean, pentsiodunen defentsan... hemerrotekara jo eta ikusi: beti alde zuzenean egon gara, euskal gizartearen borondatearen aldean, bere aldarrikapenak entzunaz eta horiek gure eginez. Alderdia zaharra da izatez baina gaztea da eginez, eta horregatik ere gazteak Alderdia gara eta gazte egiten dugu. Gazte garelako eta gazte gaudelako ospatzen dugu Alderdi Eguna. Katea ez da eten eta gazte diraugun bitartean... "Euskadik Aurrera darrai"! •

* Euzko Gaztedi EGren Aberri Kontselluko kidea

